

AKTA

Udalaren Ohiko Osoko Bilkura

ORGANOA: Udalbatza
DEIALDIA: Lehenengoa
EGUNA: 2015-02-26 (02)
ORDUA: 19:00 – 19:45
LEKUA: Markina-Xemeingo Udaletxeko bilkura aretoan.

BERTARATUAK:

Alkatea: Juan Jose Txurruka Txurruka (BILDU)

Zinegotziak: Alexander Aretxabaleta Egia (EAJ/PNV)
Rakel Alberdi Etxebarrieta (EAJ/PNV)
Sara Gerenabarrena Laka (EAJ/PNV)
Irma Etxeberria Gerenabarrena (BILDU)
Josune Baskaran Etxeberria (BILDU)
Gorka Fundazuri Lorenzo (BILDU)
Aitor Odiaga Garate (ARALAR)

Idazkari eta kontu-hartzailea: Iratxe Rementería Otxandio

Bertaratu ezina arrazoitu dute: Iñigo Ansola Kareaga (EAJ/PNV)
Joseba Iraolagoitia Martinez (BILDU)
Patricia Lazaro Barinagarremertería (EAJ/PNV)

AZTERGAIK:

- 1.- Aurreko akta onartzea.
- 2.- Berdintasun Plana.
- 3.- UEMAREN mozioa.
- 4.- Zabor-batze zerbitzuaren gaineko tasa arautzeko ordenantza fiskala aldatzea.
- 5.- Autokonpostajea arautzeko ordenantza.
- 6.- Gerakinak sartzeko eta Udalkutxako behin betiko likidazioaren kontu ematea.
- 7.- Zinegotzien galderak.

1.- **AURREKO AKTA ONARTZEA.**

Udalaren 2015eko urtarrilaren 29ko ohiko Osoko Bilkuraren akta irakurrita, aho batez onartu dute.

2.- **BERDINTASUN PLANA.**

6024 – 2014/62 KODEA

Josune Baskaran Etxeberriak Berdintasun Plana izeneko dokumentua aurkeztu du, aho batez onartu dutena.

Hala ere, Sara Gerenabarrena zinegotziak hartu du hitza eta pare bat xehetasun egin nahi dituela esan du. Batetik, plana egiteko prozesuan gonbidatu diren pertsonen hautaketa hartu du hizpide. Bere iritziz, hobe izango zen gonbidapena taldearen izenean egin bazen, eta taldearen esku utzi zein bidali, eta bestetik, gizonezkoen partehartzea handiagoa izan behar zela iritzi du. Josune Baskaran Etxeberriak erantzun dio lanean hasi zen taldeak erabaki zuela lehenengo batzarretara zein gonbidatu eta, hala ere, talde batzuk aldatu egin zutela gonbidatutako ordezkaria taldeko besteren bategatik, arazo barik. Bigarren xehetasunari dagokionez, berriz, Baskaran andrearen esanetan ez da inor onartu edo baztertu sexuaren arabera. Hau da, nahi duenak hartu izan du parte.

3.- **UEMAren MOZIOA.**

1402 – 2015/18 KODEA

Irma Etxebarriak UEMAK bidalitako mozio hau irakurri du:

“Espainiako Gobernuaren ordezkaria udalen jardunean gauzatzen ari den esku-hartzeak bete-bete harrapatu gaitu UEMA eta bertako udalak. Kontratazioetako hizkuntza irizpideak, diru-laguntzetarako hizkuntza irizpideak, aktak euskaraz bidaltzea edota udalak euskalduntzeko adostutako hizkuntza irizpideak susmopean jarri dituzte. Bi udalek UEMAn, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean sartzeko hartutako erabakiaren aurka ere jo du Espainiako Gobernuaren ordezkariak.

Horrela, udalen eguneroko jarduna eta udalok euskara sustatzeko egiten ari garen lana baldintzatzen dute. Administrazio publikoak hainbat zerbitzu erdara hutsean eskaintzen dituen bitartean, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzeko prestatuta gauden udalak dira susmopean jarri nahi izan dituztenak.

Egoera larria da. Euskararen ofizialtasuna bera ari dira zalantzan ipintzen. Teorian euskara zein gaztelania hizkuntza ofizialak dira Euskal Autonomi Erkidegoan. Baina, praktikan euskarak, erdara erabili ezean, ez duela balio ofizialik esaten digute errekerimendu eta helegiteen bitartez.

Egoera honen aurrean Markina-Xemeingo Udalak adierazi nahi du:

- Markina-Xemein Udalak euskara sustatzeko egiten ari den ahalegina berretsi nahi du. Euskararen bidea beste eragile eta instituzioekin elkarlanean garatzeko konpromisoa adierazi nahi du.

- Gure herria berezia da hizkuntzaren ikuspegitik. Horregatik, udalerri euskaldunak, euskararen arnaguneak indartzeko, politika eraginkorrek abian jartzen saiatuko gara; hizkuntza politika euskara sailetik harago eraman, eta euskararen arnaguneak duten garrantzia aintzat hartuta, politika orokorraren erdigunean kokatzen saiatuz.

- *Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariak udalen jardunean eta bereziki euskara sustatzeko neurrien aurka izandako esku hartzea salatu nahi dugu. Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariaren figura eta lana bertan behera uzteko eskatzen dugu.*

- *Eusko Jaurlaritzari eskatu nahi diogu euskara sustatzeko ahaleginean ari garen udalerrri euskaldunetako Udalak babestu ditzan.*

- *Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak deituta, euskaldunoi ezartzen zaizkigun oztopoak salatu eta euskaraz bizitzeko nahia aldarrikatzeko, otsailaren 28an, 17:30ean, Donostiako Gipuzkoa Plazatik abiatuta egingo den manifestazioarekin bat egin nahi du Markina-Xemeingo Udalak. Herritarrei dei egin nahi diegu mobilizazioan parte hartzeko”.*

Sara Gerenabarrena Lakak hartu du hitza ondoren, eta esan du kontra-mozio bat aurkeztu nahi zutela baina azkenean ez dutela egin. Alkateak irakurtzera gonbidatu du eta posta elektronikoz bidali dezan, aktan jasota geratzeko. Testuak hauxe dio, hitzez-hitzez::

“Kontuan hartuz indarrean dagoen legeriaren arabera EAEn kokaturiko herri-administrazio guztien betebeharra dela herritarrak beraiek aukeraturiko hizkuntza ofizialean artatzea eta administrazioaren jardunean elebitasuna bermatzea, eta kontuan hartuz jarduera administratibo guztietan -salbuespenik gabe- bermatu behar dela elebitasun ofiziala, baita kontratazio administratiboan ere.

Kontuan hartuz, halaber, herri administrazio bakoitzaren legezko betebeharra dela bere jarduera esparruan bermatzea elebitasun ofizialaren aplikazioa.

Kontuan hartuz, azkenik, Herri Administrazioetan Euskararen Erabilera Normalizatzeko arauak ematen dituen apirilaren 15/eko 86/1997 Dekretuari jarraiki, aipatu Dekretuaren eraginpeko herri-administrazio bakoitzak Euskararen Erabilera Normalizatzeko bost urteko Plana egin eta garatu behar duela, eta testuinguru horretan besteak beste kontratazio administratiborako hizkuntza irizpideak ere finkatu behar direla betiere lege-arauak errespetatuz.

Hori guztia kontuan hartuz, behean sinatzen dugun udal taldeok, ondorengoa onar dezan proposatzen diogu Markina-Xemeingo Udalari:

1.- Markina-Xemeingo Udalak konpromisoa hartzen du euskara zerbitzu hizkuntza izan dadin herritarrekin, harreman hizkuntza administrazioen artean, eta lan-hizkuntza administrazio barruko eguneroko jardunean.

2.- Markina-Xemeingo Udalak jarraituko du 2013-2017ko Plangintzaldirako Markina-Xemeingo Udalaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planean jasotakoa betetzen, eta horretarako bete egingo ditu Herri Administrazioetan Euskararen Erabilera Normalizatzeko arauak ematen dituen apirilaren 15/eko 86/1997 Dekretuan jasotako zehaztapenak.

3.- Markina-Xemeingo Udalak bat egiten du eta bere adostasuna azaltzen du Eusko Legebiltzarrak 2014ko martxoaren 28an onartu zuen Administrazio-kontratu publikoetako gutun-azaletan eta berariazko klausula administratiboetan hizkuntza-baldintzak jartzeari buruzko legez besteko proposamenarekin bere puntu guztietan, eta, ondorioz, Eusko Legebiltzarrak aipaturiko legez besteko proposamenean Eusko Jaurlaritzari egindako eskaerak berresten ditu.

3.- Erabaki honen berri Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari eta Espainiako Gobernuaren EAeko Ordezkaritzari ematea”.

Jarraian, Udaltzako legez aurkeztutako mozioa bozkatu du eta onartu egin du BILDUKo zinegotzien eta ARALARreko zinegotziaren aldeko botoekin eta EAJ/PNVko zinegotzien abstentzioarekin.

4.- **ZABOR-BATZE ZERBITZUAREN GAINEKO TASA ARAUTZEKO ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA.**

3226 – 2015/39 KODEA

Zabor-biltze zerbitzuaren gaineko tasa arautzen duen ordenantza fiskala aldatzea proposatu da. Hala nola, herriko arraindegiei tasaren % 50eko hobaria ezarriko zaie baldin eta euren arrain-hondakinak Ondarroako portuan propio jarritako edukiontzira eramaten badituzte.

Ogasuneko udal informazio batzordeak aztertu du proposamena eta onatzen eman du.

Azaldutakoak aztertu eta gero, Udaltzako aldaketa aho batez onartzea erabaki du. Aldizkarira iragarki bat bidaliko da, hogeita hamar eguneko jendaurrean jarriko dena argitaratzen denetik zenbatzen hasita. Erreklamaziorik ez badago beste iragarki bat bidaliko da, aldatutako testuarekin, eta bigarren hau argitaratzen denean aldaketa indarrean jarriko da.

5.- **AUTOKONPOSTAJEA ARAUTZEKO ORDENANTZA.**

3226 – 2015/39 KODEA

Aitor Odiaga Garatek auto-konpostajea arautzeko ordenantza-proposamena aurkeztu du. Dokumentuaren nondik norakoak azaldu ditu eta, hain zuzen ere, zer eta zelan arautu nahi den. Besteak beste, eta batez ere, argi utzi nahi da zer auto-konpostatu daitezkeen eta konposta egiteko guneak zeintzuk baldintza bete behar dituzten inguruko etxebizitzetan bizi direnek kalterik eta molestiarik ez eragiteko.

Alex Aretxabaleta Egiak hartu du hitza ondoren eta esan du bere iritziz eta ordezkatzeko duen taldearen ustez ordenantza oso ondo dagoela, baina lehenago ere adierazi izan dutenari eutsi dio. Hau da, bere taldea bosgarren edukiontzia alde dagoela, Aldundiak dohainik ematen duelako eta, gainera, zalantzak dituztelako auto-konpostaje sistemaren inguruan eta ematen diren datuen zehatzak direnentz.

Aitor Odiaga Garatek erantzun dio ez dela egia bosgarren edukiontzia doakoa denik, Aldundiak ordaindu egiten duelako, denon diruarekin ordaindu ere. Beste alde batetik, zabor organikoa transferentzia zentrora eramateak ere kostu bat duela esan du; zabor hori erretzeak, berriz, 95 euro dela tonako, gehi ahaztu egin behar ez dena, hau da, zaborra erretzearen ondorioz atmosferara isuritako CO₂ak ingurumenari egiten dion kaltea. Bere esanetan ez dago argudiorik auto-konpostajearen ontasunak ezbaian jartzeko. Ikusi baino ez, dio, herrian borondatez ari diren herritarren kopuru handiari eta interesari buruzko datuak. Datu zehatzak dira, izen eta abizenak -besteak beste- jasotzen dituztenak. Konpostaren kalitateari dagokionez, berriz, analisiak egin ohi direla esan du, eta analisi horietatik ondorioztatzen denez, lortutako produktuak ez ei dio ezelako kalterik egiten ingurumenari. Aitzitik, ezin hobea ei da ongarri lez erabiltzeko.

Alexander Aretxabaleta Egiak erantzun dio, lehen esandakoa errepikatuz. Hau da, ordenantza oso ondo dagoela eta, sistema honekin jarraitu eta emaitzak onak direla ikusiz gero, ondo begitantzen zaiola.

Beraz, Udaltzako BILDUKo zinegotzien eta ARALARreko zinegotziaren aldeko botoekin eta EAJ/PNV-ko zinegotzien abstentzioarekin, ordenantza behin behinean onartzea erabaki du. Erabaki honen iragarkia bidaliko da BAOran eta hogeita hamar eguneko jendaurrean egongo da argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita. Erreklamaziorik ez balego beste iragarki bat bidaliko da

aldizkarira, oraingoan ordenantzaren testu osoarekin, eta bigarren hau argitaratutakoan ordenantza indarrean jarriko da eta aditzera emango zaio Lea-Artibaiko udalen Mankomunitateari.

6.- **GERAKINAK SARTZEA ETA UDALKUTXAKO BEHIN BETIKO LIKIDAZIOAREN KONTU EMATEA.**

3105 – 2015/35 KODEA

Gai hau mahai gainean uztea erabaki da, ekitaldia ezin izan delako itxi gaurko osoko bilkura egin orduko.

7.- **ZINEGOTZIEN GALDERAK.**

Ez da egon.

ETA BESTERIK EZ AZTERTZEKO, ALKATEAK AMAITUTZAT EMAN DU BATZARRA, 19:45ETAN, ETA UDALEKO IDAZKARI ETA KONTU-HARTZAILE NAIZEN HONEK HAN ESAN ETA ERABAKITAKO GUZTIAREN FEDE EMAN DUT.

ALKATE-UDALBURUA,
Juan Jose Txurruka Txurruka

IDAZKARI ETA KONTU-HARTZAILEA,
Iratxe Rementeria Otxandio